


OSTALARIAK

2026



GORA

Aiaraldeko
jai euskaldunak

Ostalarientzako proposamena

Dinamikaren sortzaileak:

Zertan datza?



Gora Aiaraldeko Jai Euskaldunak dinamikaren barruan, aurten ostalaritzarekin lankidetza zuzena sustatu nahi dugu, jaietan euskararen erabilera bultzatzeko eta indartzeko.

Ekimen honen xedea da:

- tabernetan euskararen erabilera erraztea eta bultzatzea
- euskaraz jarduteko ahalegina egiten duten establezimenduak ikusgarri egitea
- eta dagoeneko euskara erabiltzen duten tabernak balioan jartzea eta indartzea

Horretarako, ostalariei parte hartzeko aukera irekia eta mailakatua proposatzen diegu, bakoitzak bere errealitatetik eta ahalmenetik bat egin dezan.

Zer eskatzen dugu?

Egunerokoan erraz txertatu daitezkeen keinuak dira:

- Kartelak eta oinarrizko informazioa euskaraz edo elebitan jartzea
- Bezeroari egiten zaion lehen agurra euskaraz izatea
- Txanda jendetsuetan behintzat zerbitzari euskaldun bat egotea
- Musikan, euskarazko kantuak txertatu



Laguntza

Dinamikaren barruan, laguntza praktikoa eskaintzen da:

- Kartelak elebitan jartzeko, udalaren eta euskara zerbitzuaren laguntza eskatzeko aukera
- Euskarazko musika jartzeko, playlist prestatuak (estilo ezberdinetakoak)
- Zalantzak argitzeko, harremanetarako pertsona (Christian 688862949)

Taberna euskaldunen mapa

Aurten, Taberna Euskaldunen Mapa sortuko dugu. Mapa honetan agertuko dira euskararen aldeko konpromisoa hartu duten tabernak, bakoitzak hartu duen konpromiso mailaren arabera.

Oinarrizko konpromisoa

KARTELAK GUTXIENEZ EUSKARAZ

Erdiko konpromisoa

KARTELAK GUTXIENEZ EUSKARAZ
MUSIKAREN %50A MINIMO EUSKARAZ

Konpromiso aurreratua

KARTELAK GUTXIENEZ EUSKARAZ
MUSIKAREN %50A BAINO GEHIAGO EUSKARAZ
GUTXIENEZ ZERBITZARIEN 1/2 EUSKALDUNA



Taberna euskaldunen mapa

Mapa osatu ondoren:

- Herrian bertan zabalduko da
- Sare sozialetan partekatuko da
- Herritarrei aukera emango zaie euskararen aldeko hautua egin duten tabernak identifikatzeko eta lehenesteko

Horrela, konpromisoa hartzen duten tabernak ikusgarriago egingo dira.





Parte hartzeko

Para participar




Christian

688862949



E-posta

info@aiaraldecoeuskalgintza.eus



www.aiaraldecoeuskalgintza.eus